

## **EIMA (Euskal Ikasmaterialgintza)**

- Sarrera
- Diru-laguntza deialdiak
- Euskal ikasmaterialen EIMA katalogoa eta gordailua
- Euskal ikasmaterialen Estilo-liburua
- Euskal ikasmaterialen kalitatea
- Sariak
- Bildumak

# Sarrera

EIMA izena akronimo bat da eta hau esan nahi du: *euskal ikasmaterialgintza*. Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saileko Euskara Zerbitzuak 1982. urtetik hona abian duen lan-programa bat da. Helburu nagusia da unibertsitate aurreko irakasmaitarako euskaraz behar adina ikasmaterial sor dadin bultzatzea, ikasmaterial horien kalitatea zaintzea eta ikasmaterial horiek zabalkundea izan dezaten administraziotik laguntzea.

Helburu hori betetze aldera, EIMA programak euskarazko ikasmaterialak sortzeko diru-laguntza deialdiak ateratzen ditu urtero:

- [EIMA 1](#) - Unibertsitate aurreko irakasmaitarako euskarazko ikasmaterial inprimatuak egiteko diru-laguntzak.
- [EIMA 2.0](#) - Unibertsitate aurreko irakasmaitarako euskarazko ikasmaterial digitalak egiteko diru-laguntzak.
- [EIMA 4](#) - Unibertsitate aurreko irakasmaitarako euskarazko ikasmaterialak sortzeko diru-laguntzak.

Sorkuntzarako diru-laguntzez gainera, ikasmaterialgileen lan eskerga aitortu nahi izan da administraziotik [Ixaka Lopez-Mendizabal](#) eta [Migel Altzo](#) sari-banaketekin, 1986an hasi eta 2011 arte urtero-urtero euskarazko ikasmaterialik onenak sarituz.

Ikasmaterialen kalitate egokia bermatzeko, diru-laguntza deialdietara aurkezten diren ikasmaterialei hainbat azterketa egiten zaizkie: hizkuntza-azterketa, didaktika-azterketa eta azterketa teknikoa. Arloan arloko teknikari berezituak arduratzen dira azterketa horiek egiteaz. Ikasmaterialen hizkuntza-kalitateari lotuta, ikasmaterialentzako [estilo-liburua](#) argitaratzen da, zatika. Guztira, 9 liburuki argitaratu dira.

Ikasmaterialen zabalkundean laguntzeko, berriz, EIMA katalogoa sortu zuen Sailak, 2005ean. [EIMA katalogoa](#) euskarazko ikasmaterialak jasotzen dituen interneteko baliabidea da. Euskarazko ikasmaterialen informazio zehatza eskaintzeaz gain, hainbat eta hainbat ikasmaterial zuzenean kontsultatzeko edota jaisteko aukera ere ematen du.

## Diru-laguntza deialdiak

- [EIMA 1](#) - Unibertsitate aurreko irakasmailetarako euskarazko ikasmaterial inprimatuak egiteko diru-laguntzak.
- [EIMA 2.0](#) - Unibertsitate aurreko irakasmailetarako euskarazko ikasmaterial digitalak egiteko diru-laguntzak.
- [EIMA 4](#) - Unibertsitate aurreko irakasmailetarako euskarazko ikasmaterialak sortzeko diru-laguntzak.

# Euskal Ikasmaterialen EIMA katalogoa eta gordailua

## Bilatu katalogoan

EIMA katalogoa euskarazko ikasmaterialei buruzko informazioa eskaintzen duen erreferentzia-iturria da. Unibertsitate aurreko ikasmailetarako 20.000 erregistrotik gora daude katalogo horretan bildurik, eta oso erraz erabiltzekoa da: ikasmailaka, jakintza-gaika, ikasmaterial motaka, argitaletxeka eta egileka kontsultatu daiteke, besteak beste.

Katalogoa <http://eimakatalogoa.eus/> webgunean dago.

Gainera, EIMA katalogoaren webgunean dauden euskarazko ikasmaterial horietariko hainbat EIMA katalogoaren gordailuan (<http://eimagordailua.eus/>) gordetzen dira eta deskargatu egin daitezke.

Katalogoan mota askotako materialak aurkituko dituzu, hala nola:

- Ikasliburuak, gidaliburuak, lan-koadernoak, ariketa-koadernoak...
- Oinarrizko irakurgaiak. Haur eta gazteentzako literatura
- Kontsulta-liburuak, monografiak, irakasleen prestakuntzarako materialak...
- Hiztegiak, atlasak, mapak, horma-irudiak...
- Ikus-entzunezko ikasmaterialak, hezkuntza-softwarea, hezkuntza-jolasak...
- Interneteko baliabideak: digitalizatutako liburuak, aplikazio didaktikoak, Hezteko Objektu Digitalak, etab.

## **Ikasmateriala katalogatzeko eskaera-fitxa**

Ikasmateriala euskal ikasmaterialen katalogoan erregistratzea nahi baduzu, bete fitxa [hau](#) eta bidali katalogoaren arduradunari.

## **Harremanetan jartzeko**

Eibarko Hezkuntza Esparrua (Jaizkibel eraikina)  
Otaola hiribidea 29, 2. solairua  
20600 EIBAR  
Tfnoa: 943 20 27 48  
Posta elektronikoa: [eimakatalogoa@gmail.com](mailto:eimakatalogoa@gmail.com)

## Euskal ikasmaterialen Estilo-liburua

- [Ahoskera](#) [2014] (pdf, 2.517 KB)
- [Puntuazioa egoki erabiltzeko gida: oinarriak, jarraibideak eta aholkuak](#) [2014] (pdf, 1,60 MB)
- [Zientzia eta teknikarako euskara arautzeko gomendioak](#) [2011] (pdf, 1.304 KB)
- [Morfosintaxiaren inguruko zalantzak eta argibideak](#) [2011] (pdf, 1.564 KB)
- [Estandarizatu gabeko solasak: nola eman ikasliburuetan](#) [2009] (pdf, 590 KB)
- [Letra larriak erabiltzeko irizpideak](#) [2008] (pdf, 1 MB)
- **Onomastika [2005]**
  - [Onomastika](#) (pdf, 869 KB)
  - [Izen-zerrendak](#) (pdf, 1.768 KB)
- [Kalko okerrak](#) [2005] (pdf, 616KB)
- [Ortotipografia](#) [2004] (pdf, 532KB)

# Euskal ikasmaterialen kalitatea

## ◉ Hezkuntza Sailaren onespena

Ikasmaterialen kalitate egokia bermatzeko, diru-laguntza deialdietara aurkezten diren ikasmaterialei hainbat azterketa egiten zaizkie: hizkuntza-azterketa, didaktika-azterketa eta azterketa teknikoak. Arloan arloko teknikari berezituak arduratzen dira azterketa horiek egiteaz.

- **Onspena eskatzeko fitxa**

Ikasmaterial baten onspena eskatzeko, bete fitxa [hau](#) eta bidali onspen-azterketen arduradunari ikasmaterialarekin batera.

- **Harremanetan jartzeko modua**

Intxaurrondo 70

20015 Donostia

Tfnoa: 943 022945

## ◉ EIMAREN ibilbidea

- ➔ Ikasmaterialetako euskararen zuzentasun-egokitasunaren bilakaera: 2000-2012
- ➔ EIMA eta ikasmaterialen kalitatea

## ◉ EIMANET

2011. urtean Hezkuntza Sailak EIMANet zerbitzua jarri zuen abian. Zerbitzu horrekin, EIMA programaren bidez diruz laguntzen diren ikasmaterial digitalen kalitatea etengabe zaindu nahi du. Horretarako, edozein erabiltzailek aukera du ikasmaterial horietan detektatzen dituen hizkuntza-akats edo huts teknikoak adierazteko, berariazko [formulario](#) hau erabiliz.

# Sariak

Sorkuntzarako diru-laguntzez gainera, ikasmaterialgileen lan eskerga aitortu nahi izan da administraziotik [Ixaka Lopez-Mendizabal](#) eta [Migel Altzo](#) sari-banaketekin, 1986an hasi eta 2011 arte urtero-urtero euskarazko ikasmaterialik onenak sarituz.

## • **Ixaka Lopez-Mendizabal saria**

- Ikasmaterial inprimatu hoberenak - [Urtez urteko sariak](#)

## • **Migel Atzo saria**

- Ikus-entzunezko ikasmaterial eta hezkuntza-software hoberenak - [Urtez urteko sariak](#)

# Bildumak

Bereziki Lanbide Heziketan, baina baita Derrigorrezko Hezkuntzako eta Batxilergoko hainbat ikasgaitan ere, dagoen euskarazko liburu-urritasuna modu duin eta egokian betetzeko asmoarekin bi bilduma jarri ziren martxan. IRALE eta EIMA programen bitartez prestatu eta argitaratu ziren bildumotako liburuak, 2001ean hasi eta 2010era arte.

- [Toribio Etxeberria](#)
- [Gabirel Jauregi](#)